



## **DONOSTIAKO UDALERRRIKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA**

### **SARRERA**

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa.

Horregatik guztiagatik, udalerriko lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

### **XEDEA**

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gainera Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

- **Donostia Hiria Antolatzeko Plan Orokorren behin betiko onarpena Urumea ibarraren parte batean etenda izateari uzteko dokumentua, Udaltzarak 2014ko maiatzaren 29an eginiko Osoko Bilkuran onartua.**
- **Hirigintza Antolaketako Plan Orokorren aldaketa Oleta AL.07, Harria AL.08, Buenavista Gaina AL.11 eta Auditx Akular AL.20 eremuetan, Udaltzarak 2015eko urtarrilaren 29an eginiko Osoko Bilkuran onartua.**

### **EGIN BEHARREKO ALDAKETAK**

Aipatu zirkunstanzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- **Lurzoru hiritarraren mugapena aldatzen da.**
- 2.- **174, 211, 213, 224, 225, 231, 232, 352, 461, 504, 608, 612, 613 eta 614 zona katastralen mugak aldatzen dira.**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Ogasun eta Finantza Departamentua  
Departamento de Hacienda y Finanzas

## **I ERANSKINA**

**Hirilurraren mugatze planoak.**

## **II ERANSKINA**

**Zona katastralen planoak.**